

Mintza errezeko elez  
Etengabe ari du, nahi ala nahi ez  
Trebea baita sortzez  
Borondate onez ala bortzez  
Hitza nagusitu arazten du, egunez nahiz gauez

Betidaniko ahaide zaharra omen?  
Gorputz azalari atxikia zuzen  
Jakintzua den ez jakin arren  
Ene baitan ezarria bidai guztien  
Jantziz alda egiten du han eta hemen

Dotorea al du gorputz itxura ?  
Edo hola du agertu gura  
Gertutik gertura so egin ta ene harridura  
Biak ala biok sena ta figura ?  
Emaro, emeki sartu nahiz, barne paduran

Gogoa, nahia, ezinegona; argia da piztu  
Halako batean baina, elkarri antza eman diogu  
Bizitzak aurrez aurre, beharrez jarri al gaitu?  
Ilauna zen nohizbait, iluna da desagertu  
Gatibu zena, orain ikasle agertu

Arituaren arituz, ondorez dakar emaitza  
Askotan, aunitzetan, faltan dut bota hatza  
Orain jakin ere ba dakit, lanaren fruitua dela jakintza  
Nahizena nahiz, nohiz izan baina itxasoarekin bat  
bitza? Bihur nendin apar baina, galdu gabe ipar orratza

Xalvador Antoñanzas